

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2021erako zerga-ordenantzen aldaketa hasiera batez onestea

Udalbatzak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, 2021erako zerga-ordenantzen aldaketa hasiera batez onestea erabaki zuen:

- Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza.
- Zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak eta prezio publikoak arautzen dituen zerga ordenantza.

Udal Ogasuna arautzen duen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, jakinarazten dugu hasierako onetsitako zerga-ordenantza udal bulegoetan duzuela ikusgai; horrela, interesdunek espedienteaz azter dezaten eta hogeita hamar eguneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, egokitzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten. Agerian uzten da, erabaki honen aurka erreklamaziorik aurkezten ez bada, jendaurreko epea igaro ondoren, behin betikotzat hartuko dela.

Halaber, interesdunen eskura egongo da udalaren web orrian: www.zigoitia.eus

Ondategin, 2020ko urriaren 26an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA